

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### GIZA BALIABIDEEN SAILA

**2021eko urriaren 8an egindako ohiko bilkuran, Gasteizko Udaleko Udaltzaingo Zerbitzuko lehen agenterako (LANKO: 8011) barne-sustapeneko eskaintzan beste 4 lanpostu gehitzea onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak**

Gasteizko Udalak agintaldi honetarako dituen helburuen artean, Aurrekontu Orokorren Legeak baimendutako enplegu-eskaintza publikoa deitzea proposatzen du, udal egitura sendotzeko neurri gisa.

Une honetan, udaltzaingoko 5 lehen agente lanpostu betetzeko barne-sustapenerako eskaintza deialdia gauzatzen ari da —Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 10ean onetsi eta 2020ko uztailaren 31 ALHAOn argitaratua—. Eskaintza onetsi zenetik orain arte hainbat lanpostu hutsik geratu dira udalaren lanpostuen zerrendan, erretiroak eta behin betiko bajak direla eta.

Antolakuntza Zerbitzuaren arduradunak egindako txostenean, lehen agenteko lau leku huts daudela adierazi du eta barne-sustapenaren bidez handitzea proposatzen du.

Kontuan izan da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 16. artikulua —apirilaren 13ko 7/2007 Legea— xedatzen duenez, karrerako funtzionarioek lanbide-sustapena izateko eskubidea dutela, eta 18. artikuluan ezarritakoaren arabera barne-sustapena egiteko hautatze-prozesuetan berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipio konstituzionalak errespetatuko direla, baita aipatutako legearen 55.2 artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoak ere.

Kontuan izan da 6/1989 Legearen 69.2.c artikuluan jasota dagoenez funtzionarioek administrazio-karrerarako eta barne-sustapenerako eskubidea izango dutela. Lege beraren 46. artikuluan eta hurrengoetan arautzen da lanpostuak betetzeko modua, eta 48.2 artikulua dioenez, behin-behineko lan-izendapena duten funtzionarioek, egoera horretan dauden bitartean, derri-gorrez parte hartu beharko dute beren kidego edo eskaletako lanpostuak betetzeko deitutako lehiaketetan.

Euskal Funtzio Publikoaren Legeak xedatzen duenez, hornikuntza- eta sustapen-eskaintzak dagokien lurralde historikoaren aldizkari ofizialean argitaratuko dira foru-aldundietarako edo toki-korporazioetarako direnean.

Barne-sustapeneko deialdiaren lehen oinarrian jasota dago eskaintza handitzeko aukera (2021eko urtarrilaren 11ko ALHAOn argitaratua).

Era berean, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 37.2 artikulua xedatutakoarekin bat etorriz, negoziazio-bilerak egin dira udaleko langileen batzordearekin, 2021eko irailaren 29an, egoki iritzitako alegazioak aurkezterik izan zezaten.

Kontu-hartzailletza Nagusiaren txostena eta txosten ekonomikoa ere handitzearen aldekoak dira.

Horrenbestez, aurreko paragrafoetan adierazitakoa, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak —abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— 127. artikuluan aitortzen dizkidan eskumenez baliatuz, eta 2019ko ekainaren 21eko erabakiaren bitartez Giza Baliabideen arloko zinegotziaren esku utzitako aginpidea betez, Giza Baliabideen Arloko zinegotzi ordezkariak erabaki-proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

## Erabaki-proposamena

Lehengoa: Onestea Gasteizko Udaleko Udaltzaingo Zerbitzuko lehen agenteko (LANKO 8011) barne-sustapenerako eskaintza 4 lanpostu gehiagorekin handitzea, honela:

LANPOSTUAREN KODEA	LANPOSTUAREN DESKRIBAPENA	MATRIKULA	LANPOSTU MOTA	EHUNEKO ERREALA	PLAZA EHUNEKO	HE	DERRIGORTASUN-DATA
8011	LEHEN AGENTEA	380	R	100	100	2	
8011	LEHEN AGENTEA	381	R	100	100	2	
8011	LEHEN AGENTEA	383	R	100	100	2	
8011	LEHEN AGENTEA	469	R	100	100	2	

Bigarrena: ALHAOn argitaratzea barne-sustapenerako eskaintzaren handitze hau.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko irailaren 30ean

*Giza Baliabideen Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**IÑAKI GURTUBAI ARTETXE**